

2023ko azaroa

TOLOSAKO

ALDE ZAHARRA



TOLOSA

BIZIBERRITUZ

Tolosako Alde Zaharraren Plan Integrala
Abiapuntua: aurkezpena

ZERGATIK PLAN HAU?

Tolosaren herrigunearen sorburua eta herriaren bihotza da Alde Zaharra. Belaunaldiz belaunaldi herriko ekonomiaren, aisialdiaren, kulturaren eta aldaketen testigu izan da auzoa eta gaur egun ere, zonaldeak garrantzia berezia du gure herrian.

Hala ere, azken urteetan Alde Zaharraren bizigarritasunean moteltze zantzuak nabarmentzen ari dira eta kezka zabaldua dago gizarteko hainbat esparrutan.

Tolosako Udalak herriko gune historikoa biziberritzeko erronkari heltzeko garaia dela uste du, auzoko eta herriko bizilagunen ezinegonari erantzunez, baita elkarrekin etorkizuneko Tolosa irudikatzeko unea ere.



ALDE ZAHARRAZ



Konplexua da Alde Zaharraren gaia: etxebizitza bakoitzeko errenta baxuena duen gunea da herrian; langabezia eta etorkin tasa handiena duena; bizilagunen eskura lurrazaleko aparkaleku kopuru txikiena duena; etxebizitza huts gehiena duen zonaldea; berdegune falta...



Baina ezin dugu ahaztu herriaren izaeran eta bizian duen paper garrantzitsua: komertzio-gune indartsua da, oinezkoentzat eroso, kultur eta aisialdi eskaintza zabala duena, baita ondare garrantzitsua ere, beste ezaugarri askoren artean.



Argi dago Alde Zaharrak etorkizunera begirako plana behar duela, bizigarriagoa eta garai berrietara egokitutako auzoa izateko. Horretarako, egoera iraultzeko estrategia integrala osatu nahi da, auzotarrekin eta tolosarrekin batera.



Behin diagnostikoa eginda, lehenetasunezko proiektuak eta neurriak hartu nahi dira. Eta, azkenik, luzera begirako esku-hartzeak definituko ditu planak.



ERE DUAK

Olot
Soria
Gasteiz

- pequeñas parcelas en entornos de maizales.
- tema de actividades culturales y fiestas en el espacio público
- n de saleres y otras parcelas zona verde, espacio público y áreas
- tema de mediación en las viviendas y actividades coordinado por el CASG

- LE 1 Mantenimiento y homogenización de la imagen de saleres y huertos
- LE 2 Señalización de rutas turísticas y de hitos patrimoniales: antiguas fabricas de saltes y cortijos, camino del Flocua al Parc Naturol, etc.


- Revalorizar el valor natural y atractivo del paisaje del Parc Naturol
- Reducción del impacto de la subsolación, soterramiento por fases de las torres.
- Proteger la adquisición pública de suelo a las reservas
- Proyecto alternativo del viario alternativo como vía blanda
- Acercamiento miradores: Hotel Sant Bernal y en el cam del Mas Bufador.
- Programa de Actividades culturales en el paraje natural
- Itinerarios turísticos: del Flocua al Intervencio, ruta del Ferro de Sant Bernal al Intervencio. Carradas cam Vell de Bianga
- Permeabilizar zonas verdes e huertos de Barle, estudiar el caso de parcelas salinas frías en las cruzs barriales
- Mejorar el borde del Cam de les Bruas y apoyar mantenimiento zonas verdes de la Garrinada
- Adaptar el cam priuat que vades del Mas Bufador Vell con a la Ctra de les Feaes con Cam Singar Escotar para a bios vendants y las accesos.

- Pla Bressol et Casal
- Programa Minuts Minuts matutins coordinado por el MEC en EB
- Trasladar el Lari a l'Escola Bressol
- Programa de actividades en el Casal y Escola Bressol precedida por entidades de barrio y el CASG

- Revalorizar la plaza de Sant Miquel por su posición de espacio de centralidad
- Renovar y aumentar el mobiliario urbano
- Introducir nuevo mobiliario deportivo que admita distintos usos
- Rehabilitar los pavimentos y muros mal conservados y realizar intervenciones paisajísticas
- Estudiar suprimir un carril d'estacionament, ser plataforma única, estacionament rotativo de 18

LEYENDA
Información que puedes encontrar

Lineas estrategicas		Objetivos	Tipo de intervenciones
LE 1	Restauración de saleres y huertos	Restauración de saleres y huertos	Restauración
LE 2	Señalización de rutas turísticas y de hitos patrimoniales	Señalización de rutas turísticas y de hitos patrimoniales	Señalización
LE 3	Mejora de la imagen de saleres y huertos	Mejora de la imagen de saleres y huertos	Mejora de la imagen
LE 4	Mejora de la plaza de Sant Miquel	Mejora de la plaza de Sant Miquel	Mejora de la plaza
LE 5	Mejora de la plaza de Sant Miquel	Mejora de la plaza de Sant Miquel	Mejora de la plaza



Hiru hiri hauetako alde zaharrak biziberritzeko plan integralak jarri dituzte martxan, modu partehartzailean, eta garrantzitsuak diren esparru ugari aztertuz: etxebizitza, mugikortasuna, elkarbizitza, dinamizazioa...



AZTERGAIAK

— 01

ETXEBIZITZA ETA INKLUSIOA

Eraikinen egoera, irisgarritasuna, zonak, etxebizitza hutsak, jabeen profilak, etxebizitza motak, migratzaileak, batez besteko prezioak...

— 02

ONDAREA ETA NORTASUNA

Eraikin historikoen egoera, puntu beltzen identifikazioa, ondarearen zabalkundea, turismoaren inpaktua, zerbitzuen eskaintza...

— 03

ELKARBIZITZA ETA KONEKTIBITATEA

Aparkalekuen egoera, bizikleta aparkalekuak, mugikortasuna, segurtasuna, ostalaritza, atsedena, soinua, espazio publikoaren kalitatea, eremu berdeak, paisaia linguistikoa, jolastokiak...

— 04

ERABILERA ANIZTASUNA

Merkataritza, lokal erabilgarriak, ekipamendu publikoak, arte urbanoa, ekitaldi eta festak, kultur dinamizazioa, guneen errotazioa...

ZER LORTU NAHI DUGU?

Hauek dira helburuetako batzuk:

- Etxebizitza hutsak merkaturatzea.
- Lokal hutsei erabilera ematea.
- Kaleen mantenu egokia egitea.
- Ordenantzak behar berrietara egokitzea.
- Eraikin historikoei balioa ematea.
- Bizigune atseginak sortzea: Gorriti Plaza, Rondilla kalea, argiteria, segurtasuna...
- Aparkaleku beharrei irtenbidea ematea.
- Bizikleten aparkalekuak indartzea eta erabilera arauak ondo sozializatzea.
- Espazio publikoaren erabilera dibertsifikatzea.
- Festa egunetan aisialdiaren eta atsedenaren oreka bilatzeko mugak denon artean finkatzea, ordutegi eta egun bereziak ezarriz.
- Garbitasuna indartzeko gabeziak detektatu eta neurriak hartzea.



FASEAK



NON GAUDE

I. Fasea: Aurretiazko azterlanak eta jarduera-esparruen definizioa

Alde Zaharraren inguruko aurre-diagnostiko bat eratuko da: plano, ordenantza, historia eta datu ugari bilduz. Horrez gain, biziberritze integralerako prozesuaren oinarriak ezarriko dira, lanaren jarduera-esparruak eta prozesuaren bide-orria definituz. Lehenengo urrats hau udal teknikari eta udal-gobernuaren ordezkariekin egingo da.

Fasearen iraupena: 2-3 hilabete.



NORA GOAZ

II. Fasea: Prozesuaren jarduera- esparruaren sozializazioa

Udal barnean landutako dokumentua plazaratuko da, eragile eta herritarrekin kontraste bat izateko, eta hiri-biziberritze estrategia integralaren oinarriak eta ibilbide-orria elkarrekin finkatzeko. Elkarrizketak eta saio irekiak egingo dira, non dokumentua kontrastatu, lehentasunak (abiarazi beharreko proiektuak, adibidez) eta aztertu beharreko gaiak finkatuko diren, urratsak elkarrekin adostu daitezzen.

Fasearen iraupena: 2-3 hilabete.

Lehen bi faseak egiteko kontratazioa egin da, ondorengo faseetako oinarriak finkatzeko.



ZER EGINGO DUGU?

III. Fasea: Biziberritze estrategia integrala

Aurreko faseetan ezarritako oinarrietatik abiatuta, estrategia integral bat eratuko da, modu parte hartzaile batean. Fase honetan estrategia berrikusi, indartu eta proiektuen plangintza garatuko da. Horretarako, proiektuen aurrekontuen azterketa eta lehentasunak adostuko dira.

Fasearen iraupena: 8 hilabete.



HAS GAITEZEN

IV. Fasea: Lehentasunezko proiektuen garapena

Eta honetan, elkarrekin adostutako lehentasuna duten proiektuen garapen zehatza egingo da.

Fasearen iraupena: 12 hilabete.

Fase hauek aurreko bietan finkatutako oinarrien arabera egingo dira.



JARRAI DEZAGUN

V. Fasea: (Iraunkorra) Estrategiaren garapena

Fase iraunkorra izatea da planteamendua, urtero, estrategia gauzaten jarraitzeko. Lehentasunak bete ostean, prozesuan ateratako ideia eta proiektu egingarriekin aurrera jarraitzeko bidea ematea da helburua. Era berean, mantenu egokia egiteko estrategian jasotako puntuak jasota utziko dira.



KONTAKTUA



Josune Sanz Vidal

Giza baliabideak, Komunitatea eta
partaidetza arloko zinegotzia
jsanz@tolosa.eus



Ander Figuerido Zubiria

Lurralde arloko zinegotzi
delegatua
afiguerido@tolosa.eus



TOLOSA